

GOBERNU BATZARRA

2014. 05. 23

Alkatea: Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko maiatzaren hogeita hiruan, goizeko 10:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

Ibai Iriarte San Vicente

Zinegotziak:

Lore Agirre Zipitria
Hasier de los Rios Soraluze.
Iñaki Xabier Irazabalbeitia
Fernandez.

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Kontuhartzaitzako Teknikaria:

Paulino Alonso Eraso.

- 1.- Aurreko akta onartzea.
- 2.- TKT eta 28 Kanala: diru-laguntza.
- 3.- Herri Urrats, Nafarroa Oinez eta KMKi diru-laguntza.
- 4.- 130 Led luminaria erosteko kontratuaren adjudikazioa.
- 5.- Hondakin bilketa tasa. Hobarien eskaerak. Alokairuan.
- 6.- Hondakin bilketaren tasa. Hobarien eskaerak. EZ onartuak.
- 7.- Hondakin bilketa tasa. Hobarien eskaerak.
- 8.- Ondasun Higiezin gaineko zerga. Errekargua. Besteak.
- 9.- Ondasun Higiezin gaineko zerga. Alokairuan.
- 10.-14/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko maiatzaren 16an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- TKT eta 28 Kanala: diru-laguntza.

TKT-ri diru-laguntza:

Euskara eta Hezkuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldea Komunikazio Taldeari 74.000 euroko diru-laguntza ematea.

Kopuru honen erdia aurrerakin moduan orain bertan Tolosako Udala TKTri emango dio eta falta dena, abenduan.

Bestalde TKTri jakinarazten zaio diru-laguntza jasotzeko ekarri beharrekoak direla ondoren aipatzen diren dokumentuak:

- Jardueraren memoria.
- Diru kontuen balantzea: zergak zein gizarte segurantzaren betebeharrak eginean izatearen ziurtagiriak.
- Diru -laguntza osoa zuritzeko adinako fakturak edota berauen fotokopia konpultsatuak.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Tolosaldea Komunikazio Taldeari, Euskara eta Hezkuntza departamentuari eta Kontuhartzaitzari.

.....

28 Kanalari diru-laguntza:

Euskara eta Hezkuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 28 Kanalari 36.000 euroko diru-laguntza ematea.

Kopuru honen erdia (18.000 €), aurrerakin moduan orain bertan Tolosako Udala 28 Kanalari emango dio eta falta dena, beste erdia (18.000 €) abenduan.

Bestalde 28 Kanalari jakinarazten zaio diru-laguntza jasotzeko ekarri beharrekoak direla ondoren aipatzen diren dokumentuak:

- Jardueraren memoria.
- Diru kontuen balantzea: zergak zein gizarte segurantzaren betebeharrak eginean izatearen ziurtagiriak.
- Diru-laguntza osoa zuritzeko adinako fakturak edota berauen fotokopia konpultsatuak.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Tolosaldea Komunikazio Taldeari, 28 Kanalari Euskara eta Hezkuntza departamentuari eta Kontuhartzailtzari.

3.- Herri Urrats, Nafarroa Oinez eta KMKi diru-laguntza.

Euskara eta Hezkuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Kilometroak, Nafarroa Oinez eta Herri Urratsi 1.000na euroko diru-laguntza ematea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea interesatuei, Euskara eta Hezkuntza Departamentuari eta Kontuhartzailtzari.

4.- 130 Led luminaria erosteko kontratuaren adjudikazioa.

Bi mila hamalauko apirilaren 25ean, Udal Gobernu Batzarrak klausula administratiboen agiria eta espedientea onartu zituen, honako kontratazioa hau egiteko publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez, "130 LED luminaria erosteko".

Eskaintzak aurkezteko epearen barruan, honako hauek aurkeztu zituzten proposamenak:

. Igarlek, SAL.

. Elektra, S.A.

Maiatzaren 6ko 2014/659 dekretuaren bidez, Igarlek, SAL-ren eskaintza onuragarriena sailkatu zuen alkateak. Aipatu Dekretuarekin enpresari errekeritu zitzaion bidezko dokumentazioa aurkezteko hamar egun epearen barruan.

Epearen barruan "Igarlek, SAL", enpresak exijitutako dokumentu justifikatzaileak aurkeztu ditu.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan harturik azalpen honetan azaldutakoa eta Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateratuaren 151.4 artikulua xedatuaren arabera, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Lizitazio egintza baliozkotzat jotzea eta "Igarlek, SAL" enpresari adjudikatzea 130 Led Luminaria erosteko kontratua, prezio honetan:69.654,86 (BEZa barne).

Adjudikazio hori egiteko oinarri izan da lizitatzailleek aurkeztu dituzten eskaintzak ordena beheakor honetan:

1.- Igarlek	69.654,86 €(BEZa barne)
2.- Elektra, S.A.	72.358,00 €(BEZa barne)

BIGARRENA.- Aurkeztu diren lizitatzaille guztiei adjudikazioa jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Kontratua formalizatzeko hamabost baliodun egineko epea jartzea, adjudikazio hau jakinarazi den egunetik hasita.

5.- Hondakin bilketa tasa. Hobarien eskaerak. Alokairuan.

Ikusirik udal honetan aurkeztu diren eskariak, Hondakin bilketako tasen hobariak eskuratzeko.

Ilido horretatik, hondakin bilketako tasen hobariak zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik tasen ordenantza fiskalean arautzen dira; hain zuzen ere, 2.1.6. eranskineko 5. artikuluan.

Bertan, adierazten da hondakin bilketa zerbitzuko tasaren %100eko hobaria izango dutela gizarteratzeko eta diru sarrerak bermatzeko euskal sistemak eskaintzen dituen prestakuntza ekonomiko baterako baldintzak betetzen dituen edo Tolosan erroldatutako

lanbide arteko gutxieneko soldatara iristen ez diren sarrerak dituztela egiaztatzen duten bizikide unitateek.

Hondakin bilketaren tasaren subjektu pasiboak etxebizitzaren jabea da. Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauak honakoa dio:

“23. artikulua.

1. Tasen subjektu pasiboak dira, zergadun diren aldetik, pertsona fisiko eta juridikoak, bai eta Zergen Foru Arau Orokorrek 35. artikulua 3 apartatuan aipatutako entitateak, baldin eta:

a) Udallerriaren herri jabaria bereziki gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute beren onurarako, foru arau honek 20.2 artikuluan jasotako kasuetako baten arabera.

2. Zergadunaren ordezkioak hauexek izango dira:

a) Etxebizitza edo lokalen egoiliar edo erabiltzaileei onura dakarkien edo eragiten dieten zerbitzu edo jarduerengatik finkatutako tasetan: Ondasun higiezin horien jabeak. Horiek, bidezkoa denean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.”

Aipatutakoa kontuan izanik eta ikusita espedientean azaltzen diren eskatzaileek ez direla etxebizitzaren jabeak, ezta ere hondakinen tasaren subjektu pasiboak, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Eskatutako hobariak ez ematea aipatutako arrazoiengatik.

BIGARRENA.- Hondakin tasaren kopuruaren zenbatekoa (96,80 €) diru laguntza bidez ematea, eskatzaileen egoera ekonomikoa ikusita.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuei.

6.- Hondakin bilketaren tasa. Hobarien eskaerak. EZ onartuak.

Hondakinen bilketako tasen hobariak zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik tasen ordenantza fiskalean arautzen dira. Hain zuzen ere, 2.1.6. eranskineko 5. artikuluan.

Bertan, adierazten da zabor bilketa zerbitzuko tasaren %100eko hobaria izango dutela lanbide arteko gutxieneko soldatara iristen ez diren sarrerak dituzten subjektu pasiboek edo gizarte bazterketaren kontrako planean daudenek.

Eskaerak 2014ko martxoaren 31a baino lehen egin behar ziren.

Jasotako eskaerak aztertu ondoren, eta ikusita aipatutako artikulua dioena ez dutela betetzen, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Proposamenen agertzen diren subjektu pasiboak ez ematea 2014ko zabor bilketa zerbitzuko tasaren hobaria.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuei.

7.- Hondakin bilketa tasa. Hobarien eskaerak.

Ikusirik udal honetan aurkeztu diren eskariak, Hondakin bilketako tasen hobariak eskuratzeko.

Ilido horretatik, zabor bilketako tasen hobariak zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik tasen ordenantza fiskalean arautzen dira. Hain zuzen ere, 2.1.6. eranskinaren 5. artikuluan.

Bertan, adierazten da hondakin bilketa zerbitzuko tasaren %100aren hobaria izango dutela gizarteratzeko eta diru sarrerak bermatzeko euskal sistemak eskeintzen dituen prestakuntza ekonomiko baterako baldintzak betetzen dituen edo Tolosan erroldatutako lanbide arteko gutxieneko soldatara iristen ez diren sarrerak dituztela egiaztatzen duten bizikide unitateek.

Jasotako eskaerak aztertu ondoren, aipatutako artikulua dioena kontuan harturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2014ko hondakin bilketa zerbitzuko tasaren %100eko hobaria ematea espedituean adierazten diren subjektu pasiboak, baldintzak betetzeagatik.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuei.

8.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Errekargua. Besteak.

Uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak aldaketa batzuk sartu zituen tokiko zerga-ordainketan eta 2012ko uztailaren 10eko 131 zk.ko GAOn

La Norma Foral 4/2012, de 4 de julio, que introdujo varias modificaciones en el pago de impuestos locales fue publicada en el BOG nº 131, de 10 de julio de 2012.

argitaratuta zen.

Udalbatzak, 2013ko azaroaren 8an egindako osoko bilkuran, eta 2014ko ekitaldirako ondorioetarako, Ondasun Higiezin gainera Zergaren Ordenantza Fiskalari dagokionez, eta goian aipatutako Foru Arauko 1. artikuluan xedatutakoan babestuta, %50eko erreargua mantentzea erabaki zen aipatutako Zergaren kuota likidoaren gainean, baldin eta bizitoki erabilerarako ondasunak subjektu pasiboaren edo errentagatik edo erabilera-lagapenagatik hirugarrenen ohizko bizitoki ez badira.

Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat ohiko bizilekutzat joko da, biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona batek edo gehiagok okupatuta dagoela.

Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Aipatutako zergaren kuotaren %50eko erreargua aplikatzea I.J.I.ri, zeren 2014ko urtarrilaren 1ean 5184915 zenbaki finkoa duen etxebizitza ez zelako inoren ohiko etxebizitza.

BIGARRENA.- XXX.ri O.H.Z. zerga-ren kuotan %50eko erreargua ez aplikatzea kontutan izanik eskaeran azaldutako arrazoiak.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari.

La Corporación Municipal, en sesión celebrada el 8 de noviembre de 2013, y a efectos del ejercicio de 2014, en cuanto a la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y amparándose en lo dispuesto en el artículo 1º de la mencionada Norma Foral acordó mantener el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto, siempre y cuando los bienes de uso residencial no sean residencia habitual del sujeto pasivo ni de terceros por alquiler o por cesión de uso.

Un bien inmueble de utilización residencial se considerará vivienda habitual, siempre que conste en el padrón municipal que el bien inmueble está ocupado por una o más personas.

La Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Aplicar a I.J.I. el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto ya que a fecha 1 de enero de 2014 la vivienda con número fijo 5184915 no era vivienda habitual.

SEGUNDO.- No aplicar a XXX. el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto por las circunstancias especiales que aduce en dicha solicitud.

TERCERO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención.

9.- Ondasun Higiezin gainera zerga. Alokairuan

Uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak aldaketa batzuk sartu zituen tokiko zerga-ordainketan eta 2012ko uztailaren 10eko

La Norma Foral 4/2012, de 4 de julio, que introdujo varias modificaciones en el pago de impuestos locales fue publicada en el

131 zk.ko GAO n argitaratuta zen.

BOG nº 131, de 10 de julio de 2012.

Udalbatzak, 2013ko azaroaren 8an egindako osoko bilkuran, eta 2014ko ekitaldirako ondorioetarako, Ondasun Higiezin gaineko Zergaren Ordenantza Fiskalari dagokionez, eta goian aipatutako Foru Arauko 1. artikuluan xedatutakoan babestuta, %50eko errekarua mantentzea erabaki zen aipatutako Zergaren kuota likidoaren gainean, baldin eta bizitoki erabilerarako ondasunak subjektu pasiboaren edo errentagatik edo erabileragapenagatik hirugarrenen ohizko bizitoki ez badira.

La Corporación Municipal, en sesión celebrada el 8 de noviembre de 2013, y a efectos del ejercicio de 2014, en cuanto a la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y amparándose en lo dispuesto en el artículo 1º de la mencionada Norma Foral acordó mantener el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto, siempre y cuando los bienes de uso residencial no sean residencia habitual del sujeto pasivo ni de terceros por alquiler o por cesión de uso.

Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat ohiko bizilekutzat joko da, biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona batek edo gehiagok okupatuta dagoela.

Un bien inmueble de utilización residencial se considerará vivienda habitual, siempre que conste en el padrón municipal que el bien inmueble está ocupado por una o más personas.

Beraz, kontuan izanik, eranskinean azaltzen diren zergadunak alokairu kontratua ekarri dutela etxebizitza horiek errentan daudela ziurtatzeko,

Teniendo en cuenta que los contribuyentes que figuran en el anexo han presentado el contrato de alquiler para certificar que las viviendas figuran en alquiler,

Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

La Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ERABAKI DU

ACUERDA

LEHENA.- Eranskinean ezaltzen diren zetgaunei errekarua EZ aplikatzea..

PRIMERO.- NO aplicar el recargo a los contribuyentes que figuran en dicho anexo.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención.

10.- 14/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **14/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; 46,107,69 €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 14/2014 faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Gai zerrendatik aparte eta daukaten premia kontuan izanik, ondoren aipatzen diren gaiak tratatzen dira:

Naturtzaindia hitzarmena.-

Zaintzaitza akordioa helburu izango duen Uzturre mendiko lur saila gaur egun Tolosako udalarena da baina lehenago Miserikordia edo San Inazio Erietxearen lursaila izan zen. 1966an Miserikordia etxeak Estatuko baso ondarearekin kontsorzio bat sinatu zuen, bertan landaketa egiteko. Kontsorzio horren iraupena landaketaren aprobetxamendu nagusia egin artekoa zen.

1966ko neguan Estatuko Baso Ondareak lursail horietan landaketa egin zuen, 24,4 hektarea dituen lursailean. Gutxi gora behera, heren batean radiata pinua landatu zuen eta beste guztia larizio pinuarekin. 2013 eta 2014 urteetan egin diren mozketekin bukatutzat ematen da sinatutako partzuergoa eta beraz, Uzturre mendia kudeatzearen erantzukizun osoa Tolosako Udalak berreskuratu du.

Tolosako udalak, bere jabetzakoak dituen lur-sail hauetan eta dauden habitaten kontserbazio egoera hobetzeko borondatea dauka, horretarako osagai naturalak (batez ere, bertako basoa) eta paisaiarekikoak berreskuratuz eta artatuz, pertsona guztiek gozatzeko modua izan dezaten eta ondorengo belaunaldietarako ere hala gerta daitezten.

Era berean, ondare naturalarekin lotutako hainbat elementu historiko-kultural ditu, hala nola, Miserikordiaren etxearen hondarrak, horri lotutako baratza sailak eta telegrafo optikoaren dorrea.

Hori dela eta, Tolosako udalak ingurune honen kudeaketan laguntzeko Naturtzaindia, Kontserbazio-Biologiaren Euskal Elkartearekin akordio bat sinatu nahi du. Elkarrekin honen ekosistemen egoera egokia sustatu edo berreskuratzeko ezagutza zientifikoa eta teknikoa handia bai du.

Lur-sailak Tolosako udalerriko Santa Luzia auzoan kokatuta daude, Uzturre mendiaren magalean, hego mendebaldera begira. Zehazki, lur zaintzaitza akordioa ondorengo lur sailei eragingo die:

1. poligonoa: 78,86 eta 88 lursailak.
2. poligonoa: 90, 108, 125 eta 128 lursailak.

Sinatuko den hitzarmenean alde bakoitzak konpromiso hauek hartzen ditu:

Udalaren konpromisoak:

. Lur-sailen balio naturalak (batez ere bertako basoa) eta paisaiarekikoak berreskuratzeko eta artatzeko helburuekin bat egingo duen kudeaketa eredia erabiltzea.

. Lur sail hauetan, helburu horien aurka joan daitezkeen ekintzak ez egin eta ez beste batzuei baimentzea, batez ere:

* bizitzeko, industriarako, jolaserako edo beste edozein erabileretarako izan daitezkeen egoitzen eraikitzeak, nola eta kontratu honekin bateragarriak izan eta lur-sail horien ustiaketarako helburuarekin egindakoak ez badira.

* akordioarekin zer ikusirik ez duten iragarki panelak ezartzea.

* isurketak edo edozein modutako hondakin likidoak nahiz solidoak lurpertztea.

* bertako basoa murriztu dezaketen mozketak.

* hondeaketa, lur-berdinketa edo mehagintzarako hondeaketak.

* Naturtzaindiaren aurretiko aholkuilaritzarik gabe, edozein motatako flora edo fauna aleak sartzea edo landatzea.

Aurrekoen antzekoa izan dezaken edozein ekimen egitea eta/edo kontratu honetan lur-zaintzailtzarako ezartzen diren helburuen aurka garbi joan dezaken beste edozein jarduera burutzea.

Naturtzaindia erakundeen eroldan AS/G/15685/2011 zenbakia duen, Kontserbazio-Biologiaren Euskal Elkarteak konpromiso hauek hartzen ditu:

* kontserbazio eta berreskurapen ekimenak udalari proposatu, zuzendu eta jarraipena egitea eta, hala behar izanez gero beharko diren diru-iturriak lortzeko aholkularitza eskaini.

* Kontratu honetan sartzen diren akordioak behar duten zaintza eta jarraipena egitea.

Udalak eta Naturzaindiak urteko programa adostu beharko dute eta urte barruan egindako jardueren balantzea egingo dute. Guzti hau urtero egingo den txosten batean azalduko da ingurumen batzordean.

Kontratu honen hasierako iraupena 5 urtetan finkatzen da. Epe hori igaro ondoren, kontratua epe berdinerako berrituko da 20 urte bete arte, bi aldeek horrela adosten badute. Alderen btek hitzarmen hau bertan behera utzi nahiko balu, honen berri eman beharko dio beste aldeari, dagokion amaitze epea betetzeko gutxienez hiru hilabete falta direnean.

Bi aldeek hala komeni dela erabakiz gero, kontratua bi aldeen arteko adostasunarekin bukatutzat eman daiteke.

Hori dele eta, Udalak eta Naturtzaindiak lur-sailen balio naturalak (batez ere bertako basoa) eta paisaiarekikoak berreskuratzeko eta artatzeko akordio bat finkatzea proposatzen dute.

Hau guztia kontuan izanik eta Ingurumena, Garapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Turismo batzordeak egin duen diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosako Udalaren eta Naturtzaindia erakundearen arteko hitzarmena, Uzturre mendiko ondorengo partzelen osagai nauralak eta paisaiarekikoak berreskuratu eta artatzeko helburu duena:

1. poligonoa: 78,86 eta 88 lursailak
2. poligonoa: 90, 108, 125 eta 128 lursailak.

BIGARRENA.- Erabakiaren berri ematea Naturtzaindiari, Hirigintza, Obra eta Zerbitzu , Kultura eta Garapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Turismo departamentuei.

.....

Zumardiandiko kioskoaren ustiapena.-

Gobernu Batzarrak, 2014ko maiatzaren 9an, ondorengo erabakia hartu zuen: Zumardiaundia parkeko kioskoaren ustiapenerako baldintza agiria onartzea.

Epearen barruan proposamen bakarra aurkeztu da: Gregorio Jimenez Moralesena.

Proposamena agiriak eskatzen dituen dokumentu guztiez osatua dago aurkeztutako eskeintza.

Honetaz aparte, kontuan hartu behar da adjudikazio irizpideak baloratzerako,lizitatzailaileei eskatzen zitzaiela aurkez zezaten dokumentu hau: Parkea dinamizatzeko kultur jardueren agenda. Interesatuak aurkezten du agenda hau:

Ekintzak	Udalari eskatutakoa. Aurrekontua
Musika akustikoarekin: 3 edo 4 konzertu	1.000 euro
Poesia: 2 ekitaldi	300 euro
Hitzaldia: Gai sozial edo politiko batekin	150 euro
Erakusketa: Zumardi haundiko historia	1.000 euro
Dantza kontenporaneo: ekintza bat	200 euro

Txontxongilo saio bat	300 euro
Donosti 2016 antolakuntzakoekin harremanetan jarriko naiz batera nola egin genezakeen eta zumardi aundian zer antola dezakegun adosteko.	
Bestelakoak	500 euro
GUZTIRA	3.500 EURO

Hau antolatzeko Udalari eskatzen dion aurrekontua 3.500 eurokoa da.

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ez onartzea Zumardiaundia parkea dinamizatzeko kultur jardueren agenda, 3.500 eurokoa, hain zuzen.

BIGARRENA.- Adieraztea aurrerantzean adostu daitezkeela udaran aurrera eramateko iharduerak, Kulturako programazioaren barnean eta koordinazioarekin.

HIRUGARRENA.- Lizitazio egintza baliokotzat jotzea eta adjudikatzea Gregorio Jimenez Moralesi Zumardiandia parkeko kioskoaren ustiapena, baldintza nagusi hauekin:

-Prezioa:Udalak 230 euro hileko ordainduko dizkio.

-Epea:Ekainaren 1etik irailaren 30 arte, beste bi hilabetez luzatzeko aukerarekin.

LAUGARRENA.-Kioskoaren ustiapena hasi aurretik, Udaletxean agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

-Autonomoen erregimenean alta eman izanaren frogagiria. Baita iharduera ekonomikoko zergan alta eman izanarena ere.

- 300.000 euro gutxienez estalia duen erantzunkizuneko aseguru polizarena.

BOSGARRENA.-Adjudikazioaren berri ematea Obra eta Zerbitzu Departamentuari eta Kontuhartzaitzako Departamentuari.

Etxebizitza hutsak merkatuan jartzeko diru laguntzak. 2014.-

Tolosan dauden etxebizitza hutsak alokairuan edo erabiltzeko lagapenez merkatuan jartzea nahi ditu Udalak.

Helburu hori lortzeko, sustapen neurri gisa, dirulaguntzak bideratuko ditu Udalak, eta oinarri hauek horixe arautzen dute: hau da, 2014ko ekitaldian eman ahal izango diren dirulaguntzen lehiarik gabeko prozedura.

Hortaz, Hirigintza Batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako etxebizitza hutsak merkatuan jartzeko 2014an emango diren dirulaguntzen oinarriak onartzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Etxebizitza zerbitzuari, Kontuhartzaitzari eta Hirigintza departamentuari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:30etan.

ALKATEA

IDAZKARIA